


EAEko BPGa %1,6 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

BPGaren bilakaera EAEn
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako aurrerapenaren arabera, **EAEko BPGa %1,6 hazi zen 2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean**. Beraz, aurreko aldietan hasitako moteltzeko prozesuak aurrera jarraitzen du. Enpleguak ere, BPGak bezala, %1,6ko hazkundea izan zuen aurreko urteko aldi beraren aldean.

Gaualdien kopuruak gora egin du berriro

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko urtarriletik irailera. Milakoak




Iturria: Eustat.

Aurtengo lehen bederatzi hilabeteetan, EAEko hotel establezimenduetako gaualdiak %3,5 gehitu ziren, aurreko urteko irailera arte metatutakoarekin alderatuta. Hain zuzen ere, gaualdien kopurua sei milioira hurbildu zen, eta hori da aldi horretako erregistrorik handiena datuak daudenetik.



Industriaren prezioak %6,5 jaitsi dira

Industria prezioen indizea (IPRI)
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako datuen arabera, **EAEko IPRI indizea %6,5 jaitsi zen irailean, aurreko urteko hil beraren aldean**. Beraz, adierazle hori urte arteko tasa negatiboetan dago 2023ko apiriletik, beste behin ere, energiaren prezioen bilakaeraren ondorioz (-%30,2).

Etxebizitzen salmenta %13,2 igo zen abuztuan

EAEn saldutako etxebizitzak
Urte bakoitzeko abuztua



Iturria: INE.

Abuztuan, EAEn erregistratutako etxebizitzen salerosketa %13,2 hazi zen aurreko urtearekin alderatuta. Hala, aurtengo lehen erdian salerosketen erritmoak behera egin ondoren, orain bilakaera positiboa erakutsi du, hein batean interes tasak txikiagoak direlako.